



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06



KONTROL MOZIOA

Hiriko eskoletako patioak irekitzearen gainean

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko martxoaren 17an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Eskolak hiriko ekipamendu gisa hartuta, auzoz-auzo espazio ugari irabazi ditzakete Udalak eta auzotarrek. Zentzu horretan, asteburuetan eskola publikoetako (edo behintzat, batzuetako) patioak irekitzeko aukerarekin haur zein nerabeak jolasteko eta babestuta egoteko eremu asko lor daitezke. Gurasoen aburuz, haurrentzat ezaguna den eta segurutzat duten gunea da eskola, eta bertan lasai egoten dira asteburuetan ere. Egia da, jada lau eskolatan patioa asteburuetan irekita mantentzeko egitasmoa martxan dela, ikastorduez harago auzoari espazioa eskainiz Egiako Aitor Ikastolan, Martuteneko Arantzazu Ikastolan, Igeldoko Herri Eskolan eta Añorgako Amassorrainen.

Gai honetan kontutan hartu beharreko elementua da hirian dugun gunea eta parke estalien falta. Izan ere, oso gutxinaka goaz auzoetan eremu estaliak irabazten. Bide horretan, eskoletako patioek ekarpen handia egin dezaketela uste dugu. Gutxienez, hirian auzoka edo guneka ireki daitezkeen eskola publikoen mapa osatu, eta horiek ireki daitezzen inizatiba hartzea urrats polita litzateke. Iniziatibaz ari garenean, irekita mantenduko diren patioei kalte ahalik eta gutxien eragiteko bermeak emateaz ere ari gara. Zentzu horretan, garbiketa indartzeaz gain, gauez eskolak itxiko direla bermatzea ere garrantzitsua da.

Badakigu urrats batzuk eman direla dagoeneko: garbiketa indartu, zenbait patio gauez itxi... Norabide horretan, inizatibaz, gaur-gaurkoz itxita egoten diren



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06



beste eskolekin harremanetan jarri, eta patioak irekitzeko egitasmoa zabaltzea du oinarrian kontrol mozio honek. Grosen, Amara Berrin, Antiguan, hiriko ekialdean... asteburuetan estalitako gunek falta nabaria da, eta auzune horietako eskolei proposamena luzatzeak Udaletxearen ardura behar lukeela uste dugu, proposamenak jaso zain egon gabe, bide hau modu ordenatuan eta orekatuan egin dadin.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako
KONTROL MOZIOA:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari identifikatu ditzala asteburuetan eskolarik irekita ez duten eta parke estalirik ez duten hiriko gunek.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari patioak irekitzeko proposamena luza diezaiela patioak irekitzen ez dituzten eskolei (aurreko puntuan aipatutako identifikazio lanari jarraiki).
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari patioak irekita mantentzeko garbiketa eta bestelako babes-neurriekin lagundu dezan.

Donostian, 2025eko martxoaren 20an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia